



JOKABIDE DESEGOKIAK

30. artikulua

- Justifikatu gabeko puntualtasun hutsegiteak.
- Justifikatu gabeko bertaratze hutsegiteak.
- Materiala eta instalazioak nahita gaizki erabiltzea.
- Irakasleak esandakoa ez betetzea.
- Hezkuntzako komunitateko kideei jarrera desagokiak.
- Ikastetxean debekatuta dauden material, ekipo, arropa etab.
- Baimenik gabe ikastetxeko ekipamenduak erabiltzea.
- Ikastetxeko langileei gezurra esatea.
- Azterketan kopiatzea edo beste kopiatzen uztea.
- Ikastetxekoa ez den jendea baimenik gabe ikastetxera ekartzea.
- Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien nahiaren aurka.
- Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzari horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.
- Baliabide elektronikoak: Musika tresna, ordenagailu, tablet eta telefono mugikorrek soilik irakasleen oniritziarekin erabiliko dira. Beti ere irakaskuntza baliabide bezala erabiltzeko helburuarekin.
- Klase orduetan freskagarri, kafe eta ura edatea onartuko da, betiere garbitasunean eraginik egiten ez badu eta soilik irakasleen oniritziarekin



BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK

31. artikulua

- Ikastetxeko edozein irakasle edo langileei irain edo mehatxuak
- Ikaskideekiko irain edo mehatxuak.
- Azterketa ereduak lapurtzea edota erantzunak kopiatzea edo zabaltzea.
- Notetan edo beste dokumentu ofizialetan aldaketak egitea, adingabeek dagokien hartzaileei dokumentuak ez ematea.
- Ikastetxeko instalazioetan bidegabeko kalteak eragitea.
- Ikastetxeak hartutako erabakiak nahita ez betetzea.
- Besteen irudi propiorako eskubidea ez errespetatzea edo indarkeria erabili gabe beste.
- Edonor bere nahiaren kontra zerbait egitera behartzea.
- Besteei lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtzirik gabe erabiltzea.
- Ikastetxeko langileei gezurra esatearen ondorioz hirugarren bat kaltetua ikusten bada.
- Diskriminazioa dakarren edozein ekintza bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabidetzat hartzen ez bada.
- Aurreko artikuluan adierazitako jokabideren bat hiruhileko berean 3 aldiz errepikatzen bada (beti ere aurreko bi kasuak zuzenduak izan badira).
- Ikasleak bere betebeharrak ez betetzea besteekiko eragina izanik (bizikidetzari kalte larria, 32. artikuluan, bilduta ez badago).



JOKABIDE LARRIAK

32. artikulua

- Irakasleekiko diziplinarik gabeko ekintza edo obedientzia-ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adierazpen biziki laidogarri edo iraingarriak ere.
- Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoa edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua etab.
- Jazarpen sexista, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki halakotzat hartuta.
- Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.
- Ikastetxeko hezkuntza komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea.
- Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus entzunezko edo baliabide informatikoen bidez.
- Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.
- Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei, bai bakarka bai taldean.
- Grabazio baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea.
- Ikastetxeko jarduneko ekintzetan beste edonoren izena erabiltzea.
- Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea.
- Delitua edo zigor-arloko hutsegitea edozein ekintza, nahita egin bada.
- Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide.
- Beste edonoren eskubideen aurka doazen jarrera guztiak: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen askatasunerako.

Oinarrizko araudia



Klaseak 60 minutukoak dira, txirrinak klase aldaketa egiteko behin jotzen du irakasle aldaketa egiteko horrela egokitzen bada, bestela klaseak jarraitu egiten du.

Klasea hasten denetik 10 minutuko, 1 orduan eta 5 minutuko tartean besteetan, atzerapena kontsideratzen da, hortik aurrera hutsegitea. Bi atzerapenekin hutsegitea.



Baliabide elektronikoak: musika erreproduzitzeko aparatuak, tabletak, telefonia mugikorra eta ordenagailuak irakasleak baimenduta eta helburu pedagogikoekin bakarrik erabili ahal izango dira



Ikasgelan edozein akats konpondu behar izanez gero, institutuko webguneko iradokizunen postontziaren bidez jakinarazi.

Instalazioak eta materialak behar ez bezala erabiltzeagatik akatsen bat sortzen duen ikasleak konponketa ordaindu beharko du, eta ezezaguna bada, talde osoak ordainduko ditu eragindako gastuak



Ezin da erre eskola esparru osoan. Erre nahi dutenek burdin hesitik kanpo egin beharko dute.



Gelan ura edan daiteke eta ezin izango da jan. Ikasgela garbi mantendu behar da.

Jardunaldia amaituta, ikasgelan norberaren takilan ez bada, ez da ezer utziko, arratsaldean beste ikasle batzuek erabiltzen dutelako. Ikaslea izango da gertatzen denaren erantzule, puntu hori betetzen ez bada.

Takilak itxita mantentzearen ardura ikaslearena da.

IKASLEEN JANGELA ERABILERA ARAUAK

1. Ordutegia: 14:30etatik 15:30ra
2. Gelaren mantenua ikasleen ardura da:
 - Zerrendan daudenendako gela 14:30etan zabalduko du Bedelak.
 - Mikrondas-a egunero garbitu behar da.
 - Erabilitako ontziak otordu bakoitzean garbitu behar dira.
 - Xaboa, estropajuak edo papela bukatzean bedelari jakinarazi.
 - Zerbait jauzten bada bedelari eskatu txukun uzteko garbitzeko herramientak.
 - Bukatzean dena jaso, argiak itzali eta ate itxita utzi.
3. Gelaren erabilera desegokiak ondorioztatuko du baliabidea erabili ez izana.

-NORMAS DE UTILIZACION DEL COMEDOR DE ALUMNOS

1. Horario: 14:30-15:30
2. El mantenimiento del area es responsabilidad de los alumnos/as:
 - Para los alumnos inscritos se abrirá el area a las 14:30.
 - El microndas se limpiara a diario.
 - Los utensilios utilizados se limpiaran cada comida.
 - Cuando el jabón, estropajo, papel... se acaben se comunicará a los Bedeles.
 - Si se cae algo pedid a los bedeles las útiles de limpieza para dejar todo limpio.
 - Antes de salir recoger todo, apagar las luces y cerra la puerta.
3. El uso inadecuado del area implica No poder hacer uso del recurso.

